# Editorial

# Ez mendiak

ESAKERA hau Vicente Perales eta Alfonso Porrasen arteko berriketa batetik atera omen zen, zera dela eta: oso ondo dagoela katalogoak eta mendien zerrendak egotea, aukerarik asko ematen baitute mendizaleak atera eta leku berriak ezagutzera animatuz.... Baina horrek ez diezagun ahazterazi Euskal Herrian badaudela mendi gehiago Gailurren Katalogo Ofizialean agertzen direnak baino.

"Cent Cims" delako zerrenda murriztaileagoa da oraindik. Kataluniako Federakundeak (FEECko gure lagunenak) atera berri du uda honetan lehiaketa bat gure Ehun Mendien antzerakoa, 170 mendirekin soilik, Kataluniako 9 herrialdeetan katalogotuta, Andorra eta Ipar-Kataluniaz aparte. Formatoa modernoa da. Interneten bitartez betetzen da, federatua den klubaren "vist I plau" delakoarekin. Arau gutxi du edo, hobeto esateko, bat ere ez. Arrakasta nabarmena izan da: lau hilabetetan 500 federatu baino gehiago ari dira parte hartzen.

Ba oso ondo dago hori eta behar bada nota hartu beharko dugu guk gure Ehunekoen Anaiarte zaharkitua bizkortzeko. Baina asuntua konplikatu egiten da, egunero ateratzen baitira mendizale batzurentzat gustokoak izango diren mendi-zerrendei buruzko planteamendu berriak. Adibidez, postontzia duten mendien bilduma egitea, argazkia eta guzti, orain oso erraza baita makina digitalei esker. Aintzindari-lanak Arabako Federadundearen Ingurugiro-Batzordeak egin zituen. Eta erakunde honek bizirik iraun izan dituen hamabost urteetan egindako programa ederrenetariko bat izan zen. Mendirik Mendi deitzen zen eta Arabako mendietan zeuden 156 postontzien katalogoa zen (Katalogoaren 127 tontorretakoak eta beste batzutakoak), gero 1997 urtean Arabako klubek adostu zuten postontziak ipintzeko arautegia sortu zuena.

Eta hor dabiltza postontzia duten ez-mendien bildumazaleak informazioa elkar trukatuz, Mendikaten web orrian 2 kategoriakoak. Web orri hau 1996 urtetik hona dago martxan eta gaur egun 2.930 gailurren fitxa baino gehiago ditu, koordinatuen zehaztasun guztiekin eta argazkiak, seinaleak,....Azken eranspena Igartua mendia izan da: 339 metrotakoa eta Bizkaiko Ereño herrian kokatua, abuztutik hona postontzi eder bat du eta Omako baso sorginduaren gainetik metro batzuk atzerago dagoen "urjauzi urdinaren" enigmaren atalaurrea da.

Zer esanik ez, beste mendi asko daude postontzirik ez dutenak. Bizkaian esanguratsua izan daitekeen edozein gailur aurkitzeko ezinbestekoa den Bizkaiko Mendien Katalogo antologikoan zerrendatutako ehundaka mendiak, kasu. Adibidez, Atxapunta mendia, bere 197 metroak Busturian altxatzen dituelarik, Mundakako itsasadarraren meandroen gainetik, harro eta malkartsu, probokazio etengabea da aurkitzeko nondik doan igoteko bide bakarra eta artadiaren artean haitzen gainean kulunkan dauden hiru ikurriñak.

Bilatzea merezi duten mendi asko geratzen dira. Baietz eduki zeuk ere erakustea merezi duten batzuk.

# Los no montes

LA expresión salió por lo visto en una charla entre Vicente Perales y Alfonso Porras, a cuenta de que está muy bien que haya catálogos y listados de montes, porque dan mucho juego animando a los montañeros a salir y conocer nuevos sitios... Pero que eso no nos haga olvidar que en Euskal Herria hay muchos más montes de los que aparecen en el Catálogo oficial de Cimas.

Todavía más restrictiva es la lista de las "Cent Cims". La Federación Catalana (la de nuestros colegas de la FEEC) acaba de lanzar este verano un concurso al estilo de los Cien Montes, con sólo un total de 170 montes catalogados en las 9 regiones de Catalunya, además de Andorra y Catalunya Norte. El formato es moderno. Se rellena por internet, con el "vist i plau" del club al que pertenece el federado. Con muy pocas o casi ninguna regla. El éxito ha sido notable: en cuatro meses hay concursando ya más de 500 federados.

Pues está muy bien y quizá haya que tomar alguna nota para agilizar a nuestra vetusta Hermandad de Centenarios. Pero la cosa se complica porque cada día salen nuevos planteamientos de listas de montes que ilusionan a algunos montañeros. Por ejemplo, coleccionar las cimas con buzón, desde luego sacando foto, que ahora es muy fácil con eso de las máquinas digitales. El trabajo pionero lo realizó el Comité de Medio Ambiente de la Federación Alavesa. Fue uno entre los muchos programas excelentes que ha realizado en los quince años de existencia. Se llamaba Mendirik Mendi, y era un catálogo de los 156 buzones existentes en los montes de Araba (en las 127 cimas del Catálogo y en otras), que dio origen a una normativa de colocación de buzones, que acordaron los clubs alaveses en 1997.

Ahí andan intercambiando información los coleccionistas de no-montes con buzón, los de categoría 2 de la página web de Mendikat, esa página que está en marcha desde 1996 y que hoy cuenta ya con más de 2.930 fichas de cumbres con todos los detalles de coordenadas, fotos, señas, etc. La última incorporación ha sido el Igartua, de 339 m, en el pueblo bizkaino de Ereño, ostentando un hermoso buzón desde este mes de agosto, y que sirve de antesala al enigma de la "cascada azul", erguida unos metros detrás, sobre el bosque encantado de Oma.

Evidentemente hay otros muchos montes que existen y no tienen buzón. Como los cientos y cientos de cumbres listadas en el antológico "Catálogo de Montes de Bizkaia" de Patxi Galé, la biblia imprescindible para localizar cualquier cota bizkaina que tenga alguna significación. Como por ejemplo el Atxapunta, que levanta sus 197 metros en Busturia, sobre los meandros de la ría de Mundaka, orgulloso y agreste, como una permanente provocación para descubrir por dónde se encuentra el único sendero de subida y para encontrar las tres ikurriñas que ondean sobre las peñas entre el denso boscaje de encinas.

Quedan muchísimos montes que vale la pena buscar. Seguro que tú también tienen algunos que te gustaría enseñar.

Txomin Uriarte